

IKER DEZAGUN

Osagaiak:

- Eguneroko eskandalua posterra.

Aurretiazko oharra:

- Jarduera honetan, posterraren bigarren zatia landuko dugu: kirolen atala.
- Jarduera honen bidez, elikagaiak alferrik botatzeak ingurumenean eragiten dituen kalteei buruzko gogoeta egingo dugu.
- Prestatu eta azaldu jardueran landuko ditugun hiru kontzeptuak:
 - Aztarna hidrikoa: azaleko uraren eta lurpeko uraren kontsumoa adierazten du, m³-tan. Elikagaiak alferrik botatzearen kasuan, elikagai horiek ekoizteko erabiltzen den ura adierazten du.
 - Lurzorua: herrialde baten azalera adierazten du, hektareatan. Elikagaiak alferrik botatzearen kasuan, elikagaiak ekoizteko landutako luraren azalera adierazten du.
 - Karbono-aztarna: elikagaiak ekoiztean atmosferara isuritako berotegi-efektuko gasen kopurua adierazten du, CO₂ kg-tan.


Prestaera:

- Azaldu posterrean azaltzen diren hiru kontzeptuak: aztarna hidrikoa, lurzoruaren okupazioa eta karbono-aztarna. Eskatu ikasleei saia daitezela asmatzen munduko zein herrialde kokatzen diren aurreneko hiru postuetan.
- Bukatzen dutenean, galdetu zein erantzun jarri dituzten, eta idatzi arbelean gehien errepikatzen direnak.



Bazkalondoan:

- Bukatutakoan, posterra erakutsi, eta artikulua irakurri.
 - Zer iruditu zaizue deigarriena? Zergatik? Pentsatzen al zenuten gauzak horrela zirela?
 - Kasuren batean asmatu al duzue?
 - Pentsatu al duzue inoiz alferrik botatzen diren elikagaien aztarna ekologikoan? Zer iruditzen zaizue?

- 
- Alferrik botatzen diren elikagaien kopurua zenbaterainokoa den konturatzeko, hainbat ariketa matematiko egin ditzakezue. Adibidez:
 - Zenbat aldiz sartuko litzateke Espainia alferrik botatzen ditugun elikagaiak ekoizteko erabiltzen den lurzoruan (1.400 milioi hektarea)?
 - Alferrik botatzen diren elikagaien ondorioz, ur asko alferrik galtzen da (250 km^3). Zenbat pertsonak edan ahal izango lituzkete, urtebeteko epean, egunean gutxienez bi litro? Bilatu Espainian biztanle kopuru hori duten hiri batzuk.